

2.MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

- Zein da zure bezeroa?
- Zein dira bezero horien ezaugarriak?

Merkatu azterketa honen bidez, hobetu ezagutuko ditugu gure jarduera-sektorearen egoera eta gure negozioa bideratzeko merkatua. Txiki-park, jolas-jarduerak egiteko eremuak dira, helburu dutenak hurrek balio egokiak barneratzea, haurrak motrizitatea, autonomia eta sormena garatzea eta gai izan daitezzen beren ingurunean harmonian bizitzeko.

Txiki-parketan, metodologia gisa baliatzen da jolasa; eta jostailua berriz, zenbait funtzio betetzen ditu:

- Heziketa
- Gizarte-harremanak
- Elkarrekintza
- Bat-batekotasuna
- Komunitate-bizitza

Gure jarduerak gehien bat haurrentzat zuzenduta dago, hain zuzen 2 urtetik 8 urte bitarteko haurrentzat da. Baina kontuan izan behar dugu gurasoek edo tutoreek erabakiko dutela gure zerbitzuak erabili edo ez.

Gurasoentzat, taberna bat egongo da, umeak jolasten duten bitartean.

Txiki-parken inguruan bizi diren familiak aztertuta, ezaugarri hauek nabarmen daitezke:

-Zenbait familia mota. Familia batzuk ekonomia-maila ertain-altuak dira, eta biztanlegune nahiko berrietan bizi dira. Beste batzuk, ekonomia-maila ertain-baxuko familiak dira, eta biztanlegune zaharretan bizi dira. Azkenik, beste familia batzuk erosteko ahalmen handikoak dira.

- Ekonomia-maila ertain-altuak: Gure zerbitzua erabiliko dute, beraientzat ez delako gastu handirik izango.
- Ekonomia-maila ertain-baxuak: Gure zerbitzua erabiliko dute nahiko ekonomikoa delako.
- Erosteko ahalmen handiko familiak: Ez dute gure zerbitzua erabiliko.

-Zenbait kezkak.

- Materiala ez dela egokia
- Haurra mina hartzeko beldur dutela
- Haurra baztertua sentitzea
- Behar duen laguntza ez ematea
- Haurra ez dibertitzea
- Lekuaren kokapena (gertu / urrun)
- Beste batzuk